


DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
DSS2016.EU



KOOPERAROCK

Teatro Paraíso Antzerkia



Laguntzaileak



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN



donostia
kultura

TEATRO ANTZOKIA
PRINCIPAL
VITORIA - GASTEIZ



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Alava

Babeslea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA



vimeo

Kooperarock, kooperazioaren so...



Kooperarock proiektuak amaiera jarriko dio kooperazio urte bati Teatro Paraíso konpainiak eta eskola-komunitateak burutuko duten ondare artistikoaren aurkezpenarekin, abenduaren 27an, 17:30etan, Egia Kultur Etxeko Gazteszena Aretoan, Donostian.

8 eta 12 urte arteko haurrei eta beren familiei zuzendutako diziplina anitzeko esperientzia honetan, ondorengo aurkeztuko digute:

Sorkuntza eszeniko bat euskaraz

Sorkuntza honi publikoarekin elkarlanean jarriko zaio izenburua aurkezpenaren egunean.

Antzezlan dinamiko eta poetiko honetan jatorri desberdineko 4 pertsonaiek topo egin eta elkarri aurre egingo diote. Beren desberdintasunak aukera bat direla ulertuko dute, elkarren osagarri baitira. Honela, proiektu kooperatibo bat sortzea erabakiko dute eta bertan ezagutuko dute elkarlanaren, norberaren ahaleginaren eta elkarri laguntzearen garrantzia.

Aktoreak *Ander Basaldua
Amaia Salazar
Maitane Goñi
Aitor de Kintana*

Eszenografia *Ikerne Gimenez*

Argiztapena *Kandela Iluminación*

Jantziteria *Ikerne Gimenez
Skunfunk-en laguntzarekin*

Argazkiak *Adrián de Hierro*

Perkusioa *Sergio López de Landache*

Produkzioa *Pilar López*

Testua euskaraz *Juan Kruz Igerabide*

Dramaturgia eta zuzendaritza *Maxi Rodríguez*



zializazio artistikoa



Argazki-erakusketa kooperatiboa

Adrián de Hierro argazkilariaren eskutik, *Arizmendi Ikastolako* Lehen Hezkuntzako 5. mailako haurrekin burututako giza jardueretako kooperazioaren inguruko lehen bitartekaritza-proiektuaren amaiera izango da.

Bitartekaritza-taldearen kide izan dira *Zuriñe Fernández*, *Itziar Urretabizkaia*, *Javier Napal* eta *María Fdez. de Viana*, eta *Rosa A. García* izan dute koordinatzaile.

Prozesuaren inguruko bi ikus-entzunezko pieza

Ander Elorza bideo-sortzailearen eskutik, *Amara Berri* (Donostia), *Kirikiño Ikastola* (Bilbo), *Colegio San Prudencio* (Gasteiz) eta *Arberoa Ikastola* (Iparralde) ikastetxeekin burututako Arterari eta Kooperazioari buruzko bigarren bitartekaritza-prozesua dokumentatzen dute.

Halaber, *Unai García*ren dinamizazioarekin 30 ikastetxeren parte-hartzea izan duen Arabako Foru Aldundiaren ***Antzerkia Eskolara Heltzen da*** kanpainan lortutako sorkuntza artistikoaren prozesua eta publikoarekin izandako elkarrekintza ere dokumentatzen dute.



Kooperatzearen artea

XIX Kooperatibagintza, XIX. mendez geroztik solidaritatearen, erantzukizunaren, demokraziaren, ahaleginaren eta berdintasunaren printzipioetan oinarritutako kudeaketa-eredua proposatu duen mugimendu soziala izan da diziplina anitzeko proiektu honen abiapuntua. Proiektu horren helburua izan da euskal kooperatibagintzak azken hamarkadetan lanaren antolaketan, ekonomian edo hezkuntzan izan duen eragina artearen bidez aztertu eta sozializatzea.

Herritarrek emozioen eta ekintzaren bidez kooperatibagintzaren funtsa ulertzeko bizi-esperientzia eta esperientzia artistikoa eraikitzeko elkartu dira izaera desberdineko hainbat eragile: Mondragón Unibertsitatea, Lanki eta Teatro Paraíso Antzerkia.

Ezaguerara hurbiltzeko hausnarketa-prozesu batetik abiatuta, kooperatibagintzaren oinarriko balioak jorratu dira eta, ondoren, emaitza eskola-komunitatearekin sozializatu da. Eskola-komunitateak honi buruzko argazki-erakusketa batean eta antzerki-ikusizun baten sorreran parte hartu du, 8 eta 12 urte bitarteko haurrei ideiak dramatizazioaren bidez barneratzeko aukera emanez.

Sorkuntza artistikoaren prozesuaren xedea izan da elkarrizketa kooperatibo baten eta artisten eta eskola-komunitatearen elkarlaneko eredu izatea; eta horri esker lortu da haurrei zuzendutako proiektu artistiko honen emaitza.

